

LEHEN HEZKUNTZAKO KOMPETENTZIAK ETA OSAGIAK	KOMPETENTZIAK	Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia	Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia	Elkarbizitarako kompetentzia	Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako kompetentzia	Norbera izaten ikasteko kompetentzia
	OSAGIAK		Hitzezko komunikazioa: hainbat hizkuntzarako askotariko testuak ahoz eta idatziz ulertzea eta jarioz, autonomiaz, sormenez eta eraginkortasunez erabiltzea.	Hainbat iturritan (inprimatuak, ahozkoak, ikus-entzunezkoak, digitalak...) informazioa bilatzea, aukeratzea eta erregistratzea, eta iturrien egokitasuna ebaluatzea	Norberaren eta besteren nahiak asebetetz komunikatzea; hau da, norberaren sentimenduak, pentsamenduak eta nahiak modu asertiboan adieraztea eta, era berean, gainerako pertsonen sentimenduak, pentsamenduak eta nahiak adi entzutea eta kontuan hartzea.	Idea edo proiektua sortzea eta/edo nor bere gain hartzea, proiektua planifikatzea eta haren bideragarritasuna aztertzea.
		Hitzik gabeko komunikazioa: hitzik gabeko hainbat kodetako informazioa ulertzea eta jarioz, autonomiaz, sormenez eta eraginkortasunez erabiltzea.	Informazioa ulertzea, buruz ikastea, eta ulertutakoa adieraztea (pentsamendu analitikoa)	Taldean ikastea eta lan egitea, nor bere ardurak onartuz eta helburu komuneko eginkizunetan lankidetzan arituz, pertsonen eta iritzien aniztasunak dakarren aberastasuna aitortuta.	Planifikatutako ekintzak egitea eta, hala behar denean, doikuntzak egitea.	Ikasteko prozesu eta estilo kognitibo autorregulatzea
		Kompetentzia digitala: informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modu sortzaile, kritiko, eraginkor eta seguru batez erabiltzea, ikasteko, aisiarako, inklusiorako eta gizartean parte hartzeko.	Informazioa ebaluatzea eta nola ebaluatu den adieraztea (pentsamendu kritikoa)	Giza eskubideen ondoriozko printzipio etikoak betetz jardutea eta elkarbizitzaren oinarriko gizarte-konbentzioetatik ondorioztatzen diren gizarte-arauak betetz jokatzeko.	Egindako ekintzak ebaluatzea, aditzera ematea eta hobetzeko proposamenak egitea.	Portaera soziala eta morala autorregulatzea
			Ideiak sortzea, aukeratzea eta adieraztea (pentsamendu sortzailea)	Gatazkak elkarriketaren eta negoziazioaren bidez konpontzea		Motibazioa eta borondatea autorregulatzea erabakiak eta betebeharrak gauzatzeko.
			Baliabide kognitiboaren erabilera estrategikoa egitea, ikasitakoa baliatuz eta beste egoera batzuetara transferituz.			Gorputzaren funtzioak eta norberaren osasuna, ongizatea, gorputz-irudia eta sexu-nortasuna autorregulatzea.
						Emozioen autorregulazioa.

Kompetentziak lantzeko aukerak programazioan zehar

- 1) Kompetentzia bat hautatu eta osagai guztiak landu programazioan zehar
- 2) Kompetentzia bat hautatu eta bi osagai hautatu, bata lehenengo seihilekoan lantzeko, bestea bigarren seihilekoan
- 3) Bi kompetentzia hautatu, bata osagai batekin batera bata lehenengo seihilekoan lantzeko, bestea osagai batekin batera bigarren seihilekoan lantzeko